



## **Basaburuko Udala**

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)

### **2025EKO URTARRILAREN 29AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2025eko Urtarrilaren 29n, arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** Julen Beunza, Iker Isiegas, M<sup>a</sup> Mar Ansorena, Micaela Elizalde eta Javier Auza.

**EZ BERTARATUAK:** Alaia Etayo.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

## **GAI ZERRENDA**

### **1.- Aurreko aktaren onespena.**

Abenduaren 23ko ohiko batzarren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

### **2.- Alkate ebazpenak**

- 2024/145 alkate ebazpena obra baimena onartuz Ihabengo 3. Poligonoko 270. lursailean dagoen etxebizitza eraberritzeko, aurrekontua 127,646,72 eurokoa izanik.
- 2024/146 alkate ebazpena onartuz Maite Barberia Azpirozek aurkeztutako eszedentzia eskaera 1993/251 Foru Dekretu Legegilearen 26 b artikuluaaren arabera.
- 2024/147 alkate ebazpena onartuz Felix Beunza Larumbek aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera NA 1639 AL matrikuladun autoarendako, hobaria %50ekoa izango da.

- 2024/148 alkate ebazpena onartuz Jesús M<sup>a</sup> Hualde Lizarragak aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera 5157 MDL matrikuladun autoarentzat hobaria %50ekoa izango da.
- 2024/149 alkate ebazpena onartuz Joaquin Chocarro enpresak aurkeztutako aurrekontua, izotza egiteko makina 1181.50 euroko kostearekin.
- 2024/150 alkate ebazpena onartuz Arrarasko kontzejuak egindako eskaera eta hortaz Arrarasko labaderoa berritzeko aterpearen obraren EIOZ-ren salbuespena onartu, 278,75 eurokoa.
- 2024/151 alkate ebazpena onartuz Begoña Arano Galarzak aurkeztutako borondatezko eszedentzia eskaera 2024ko abenduaren 26tik 2025 ekainaren 26arte , Langileen Estatutuaren 46.2 artikulua araber.
- 2024/152 alkate ebazpena onartuz Aitor Arangoa Mariezkurrenaren alde izendapen proposamena egin Basaburuko udaleko plantilla organikoko 04 Garbiketa lanposturako.
- 2024/153 alkate ebazpena onartuz 2024ko aurrekontua luzatzea 2025ekoa indarrean egon arte.
- 2024/154 alkate ebazpena onartuz Patxi Elkano Sarasibarri ora baimena onartu Gartzarongo 6. poligonoko 6. lursailean etxea egiteko 206,864 euroko aurrekontuarekin.
- 2024/155 alkate ebazpena onartuz Aitor Arangoa Mariezkurrena izendatzea modu gehigarrian, Basaburuko udaleko plantilla organikoko 04 Garbiketa lanpostua betetzeko.
- 2024/156 alkate ebazpena onartuz Navarra Food enpresari Basaburuko Udalaren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan behin betiko baja ematea ofizioz, urtarilaren 9ko datarekin, ez baitu iharduerarik.
- 2024/157 alkate ebazpena onartuz Iturrikoa S.L Iturgintza enpresak aurkeztutako aurrekontua, Jaunsaratsko mediku kontsultategian galdara berria jartzeko, 1.700 eurokoa.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak.

### **3.- 2024/1-6 aurrekontu aldaketak. Behin betiko onespina**

Alkateak azaltzen du jada aurrekontu aldaketa hauek azaroaren 25eko batzarrean onartu zirela hasiera batez. 1998/270 Foru Dekretuaren 33. Artikulua jarraituz erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen abenduaren 17an eta urtarilaren 10a arte egongo da jende aurrean Epe honetan ez dira alegazioak aurkeztu eta hortaz dekretuak arautzen duenaren ara bera behin betiko onespina ematea dagokio aipatutako aurrekontu aldaketei.

Alkateak gogoratzen die bildutakoek lehenengo aurrekontu aldaketa dela Sasturain etxeko obren partida sortzeko bai gastuetan bat sarreretan, bigarrena kontsultategiko barruko argiteria aldatzeko partida sortzea bai gastuetan bat sarreretan, hirugarrena

ere partida sortzeko aurrekontu aldaketa da, autokontsumo eta energia berriztagarrien hitzaldien programaren gastua sartzeko.

Laugarren aurrekontu aldaketa, 1.2.1 gastu poltsari soberakina ematea da, bertan dagoen kontratatutako langabetuen partidaren gastuen aurreikuspena gainditua dagoelako 2738 eurotan. Bosgarren aurrekontu aldaketa ere berean dagoen Euskara Mankomunitateko ekarpenaren partidari ere soberakina emate da eta Rural kutzako maileguaren partidatik soberakina hartuz.

Azkeneko aurrekontu aldaketaren funtsa da eskolako jarduera osagarrien partidarako gerakina izatea aurreikuspena 1900 eurokoa izan zelako baina gastua 4900 eurokoa, hortaz kreditu transferentzia bidezko aurrekontuan aldaketarekin maileguaren partidaren soberakina erabiltzen da.

Hortaz hori guztia kontutan hartuz, bildutakoek aho batez, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Behin betikoz onartzea 2024/1-6 aurrekontu aldaketak 1998/270 Foru Dekretuaren 33.artikuluaren arabera, eta modu xehetuan argitaratuak izan daitezen agindu Nafarroako Aldizkari Ofizialean.**

#### **4.- Haur eskolako hezitzaileen ordezkapenetarako zerrenda irekiak. Oinarrien onespena.**

Aurreko batzarrean aipatu bezala ordezkapenetarako zerrenda irekiak osatzeko oinarriak prestatu dira Ttikiena Haur Eskolako zuzendariaren laguntzarekin.

Honakoak dira oinarriak:

#### **Ttikiena haur eskolako hezitzaile lanposturako zerrendak arautzen dituzten oinarriak.**

Oinarri hauetatik ateratzen diren izangaien zerrendak, nolanahi ere, lanpostu finkoak edo aldi baterakoak betetzeko hautaketa-prozesu batetik eratorritako aurreko edo ondorengo beste edozein zerrenden gehigarriak izanen dira. Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak deialdi publikoetatik edo zerrenda irekietan izena emanda eratuko dira, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioak bermatuz. Zerrenda irekietan izena emateko, pertsonak, izena emateko unean, titulazio akademikoaren eta hizkuntzaren baldintzak bete beharko dituzte. Gainerako baldintzak kontratua egiten den unean egiaztatu beharko dira. Basaburuko Udalak, ofizioz, zerrendetatik kanpo utziko ditu baldintza horiek betetzen ez dituzten hautagaiak. Zerrenda irekiak erabiliko dira egun dagoen zerrendan hautagairik ez badago. HAU AGIAN NAHASI XAMARRA DAGO?? AGIAN AZKENEKO ESALDIA KENDU JARRI DUGULAKO ZERRENDA HAU BESTEAREN GEHIGARRIA DELA??

Zerrenda irekiak kudeatzeko arauak:

1.- Zerrendetan sartu nahi duten pertsonak bide telematikoaz eskatuko dute zerrendan sartzea. Izangai guztiek aurkeztu beharko dituzte oinarri hauetan

eskatzen den titulu akademikoa eta, euskara titulua dutela egiaztatzen duten agiriak. Era berean, merezimenduak baloratzeko nahi duten pertsonak horien egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera.

2.- Balorazio-epaimahaiak hautagaiak ordenatuko ditu puntuazio handienetik txikienera, eta, hala badagokio, zerrenda eguneratuko du. Kontratazio-zerrendak baloratzeko epaimahaiak, bere eginkizunak betetzeko, behar duen informazio guztia eskatu ahal izango die kontrataziozerrendetan izena ematen duten hautagaiei, balorazio egokia egiteko.

3.- Kontratazio-zerrenda irekiak lehen aldiz irekitzeko, beharrezkoa den informazioa argitaratuko da Basaburuko Udalaren web orrian.

Une horretatik aurrera, kontratazio-zerrendak etengabe irekita geratuko dira, eta nahi duten hautagaiak edozein unetan sartzeko aukera izanen dute, aurretik adierazitako informazioa eta dokumentazioa emanez,

Zerrenda irekiak deialdi berriak egin arte egonen dira indarrean. Zerrenda irekietan parte hartzeko eskabideak 2025eko urtarrilaren 1ean irekiko dira. eta, 2025eko uztailaren lehen hamabostaldian balorazioa burutuko da eta zerrenda argitaratuko.

Eskabide-eredu hau bete beharko da, 5. puntuan adierazitako dokumentazioa erantsita: Eskaera-eredua

4.- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

- Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikaria, Haur Hezkuntzako maisuaren lanbidean aritzeko gaitzen duen gradu-titulua, Haur Hezkuntzako espezialitateko maisu-titulua edo titulu baliokidea.
- C1 titulazioa, euskara edo baliokidea. Nahitaezkoa da euskara jakitea, hizkuntzen Europako erreferentzia-esparru bateratuan ezarritako C1 ezagutza-mailan.

5.- Kontratazioaren unean aurkeztu beharreko agiriak:

- Sexu-askatasunaren eta sexuukigabetasunaren aurkako delituen batengatik eta gizakien salerosketagatik epai irmoz kondenatua izan ez dela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Baloratu beharreko merezimenduak:

- Merezimenduak baloratzeko baremoa

1) Prestakuntza (5 puntu gehienez).

Jasotako edo emandako prestakuntza etengabeko ikastaro bakoitzeko:

Ikastaro, mintegi eta lan-taldeak, haur hezkuntzarekin zerikusia dutenak, zentro ofizialek edo administrazio publikoek behar bezala ziurtatuak, 10 ordu baino gutxiagokoak ez badira: 10 orduko: 0,1 puntu.

Ikastaro, mintegi eta lan-taldeak, oro har hezkuntzarekin zerikusia dutenak, zentro ofizialek edo administrazio publikoek behar bezala ziurtatuak, 10 ordu baino gutxiagokoak ez badira: 10 orduko 0,05 puntu.

II) Laneko esperientzia (5 puntu gehienez).

Haur hezkuntzako ikastetxe publikoetan egindako urte bakoitzeko: 0,5 puntu.

Aurreko atalean aipatzen diren ikastetxeetan egindako urteko zatiki den hilabete bakoitzeko: 0,041 puntu.

Haur hezkuntzako ikastetxe pribatu edo hitzartutakoetan egindako urte bakoitzeko: 0,375 puntu.

Aurreko atalean aipatzen diren ikastetxeetan egindako urteko zatiki den hilabete bakoitzeko: 0,031 puntu.

Haur hezkuntza ez beste etapetan, ikastetxe publiko, pribatu edo hitzartuetan egindako urte bakoitzeko: 0,125 puntu.

Aurreko atalean aipatzen diren ikastetxeetan egindako urteko zatiki den hilabete bakoitzeko: 0,01 puntu.

.  
Oharrak:

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean aurkeztutako merezimenduak baino ez dira baloratuko. Ez dira baloratuko eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitu ondoren emandako zerbitzuak. Emandako zerbitzuak urtero eguneratuko dira, eskabideak aurkezteko epe berria irekitzen den bakoitzean, hots urteroko urtarilaren 1etik aurrera.
2. Data beretan bi kontratu edo gehiago aldi berean egin badira, hautagaiari puntuaziorik onena ateratzen diona baino ez da baloratuko.
3. Emandako zerbitzuak baloratuko dira zerbitzu-emate bakoitza hasten denetik amaitzen den arte, egindako lanaldiaren ehunekoa edozein izanda ere.
4. Lanbide-esperientzia enpresaren (edo lankontratuen) eta/edo administrazioaren edo erakunde kontratatzailearen ziurtagirien bidez justifikatuko da, baita lan-bizitzaren bidez ere. Ziurtagirietan honako hauek jaso beharko dira: hezkuntza-maila, lanbide-kategoria eta lan-harremanaren hasiera- eta amaiera-datak (edo, hala badagokio, indarrean jarraitzen dutenak). Lanbide-kategoria egiaztatzen duen ziurtagiririk ez dagoen kasuetan, kontratuak aurkeztu beharko dira.
5. Ez dira kontutan hartuko lanbide-kategoria edo/eta horien hasiera- eta amaiera-data zehatzak jasotzen ez dituzten zerbitzuziurtagiriak, zerbitzuen iraupena ikasturte akademiko batekoa izan bada ere.
6. Berdinketa gertatuz gero, eskabideak Basaburuko Udaleko erregistroan sartu diren egunaren eta orduaren arabera ordenatuko dira. Berdinketak

jarraitzen badu, erregistro horretako sarrera-zenbakiaren arabera ebatziko da.

Epaimahaiaren osaera: Kontratazio-zerrendak baloratzeko epaimahaia honako hauek osatuko dute:

- Basaburuko Udaleko alkatea

- Kideak: Ttikiena Haur Eskolako zuzendaria eta Basaburuko udaleko zinegotzia den Alaia Etayo.

Ordezkoak behar ezkerro espresi izendatuko dira, Basburuko udaleko beste zinegotzien artean.

6.- Ordezkapenak egiteko zerrendaren deiak honako moduan egingo dira:

Lanpostuen ordezkapenaren jakinarazpena emailaz egingo zaio zerrendako puntu gehien dituenari balorazio irizpideen arabera, honek 24 orduko epea izanen du erantzuna emailaz ere emateko. Epe hori pasata zerrendan bigarrenari jakinaraziko zaio lanpostua betetzeko eskaera eta era berean 24 orduko epean erantzuna bidali beharko du Basaburuko udalera. Eta horrela egingo da prozedura ere hurrengoekin.

Emaila jasotzen denean hautagaia lanean badago baina Basaburuko Udaleko zerrendan jarraitu nahi badu, lan kontratua bidali beharko du emailaz hori justifikatzeko eta zerrenda mantentzea eskatuz.

Prozedura ona dela adierazten dute bildutakoek baina M<sup>a</sup> Mar Ansorenak aipatzen du legalki ongi begiratu beharko litzakeela prozedura, Atarrabiako udalean duela ez asko, helegitea aurkeztu zuten prozedura hauetan ez delako azterketarik egiten.

Hortaz aholkularitza juridikoarekin aztertuko da gaia eta hurrengo batzarrean gai zerrendan sartuko da berriro.

## **5.- Ibilgailu elektrikoaren hornidura kontratuaren esleipena**

Alkateak azaltzen du urtarilaren 2an bukatu zela epea proposamenak aurkezteko. Egun horretan proposamen teknikoaren balorazioa burutu zen, aldez aurretik dokumentazio administratiboa osatua zegoela baieztatu ondoren.

Hiru enpresek aurkeztu zuten proposamena;

Autogomas SAU

Torregrosa S.L

Unsain SLU

Balorazio teknikoa hau izan da:

| MARCA   | MODELO          | Clima automatico | Sensor de aparcamiento | Cristales oscurecidos | 2 puertas laterales | Enganche | Protector aleta | Entrega antes 5 dias | Entrega 5-15 dias | Entrega 15-30 dias | Entrega +30 dias | SUMA |
|---------|-----------------|------------------|------------------------|-----------------------|---------------------|----------|-----------------|----------------------|-------------------|--------------------|------------------|------|
|         |                 | 3                | 2                      | 2                     | 3                   | 3        | 2               | 5                    | 4                 | 2                  | 0                |      |
| RENAULT | KANGOO          | 3                | 2                      | 2                     | 3                   | 3        | 2               | -                    | -                 | -                  | 0                | 15   |
| PEUGEOT | e-FIFTER        | 3                | 2                      | 2                     | 3                   | 0        | 2               | 5                    | -                 | -                  | -                | 17   |
| CITRÖEN | ë-BERLINGO PLUS | 0                | 2                      |                       | 0                   |          |                 |                      |                   |                    |                  | 2    |

Berme epearen balorazioa ondokoa:

| MARCA   | MODELO          | PLAZO GARANTIA AÑOS | PLAZO GARANTIA PUNTOS |
|---------|-----------------|---------------------|-----------------------|
| RENAULT | KANGOO          | 3                   | 0                     |
| PEUGEOT | e-FIFTER        | 4                   | 2                     |
| CITRÖEN | ë-BERLINGO PLUS | 3                   | 0                     |

Azkenik balorazio ekonomikoa:

| MARCA   | MODELO          | PROPUESTA ECONÓMICA |
|---------|-----------------|---------------------|
| RENAULT | KANGOO          | 29.041              |
| PEUGEOT | e-FIFTER        | 29.900              |
| CITRÖEN | ë-BERLINGO PLUS | 27.826,24           |

Hortaz osotara puntuazioa hau da:

|            |             |
|------------|-------------|
| Autogomas  | 72 puntu    |
| Unsain     | 82.10 puntu |
| Torregrosa | 84.10 puntu |

Abenduaren 14an egin zen irekiera ekonomikoaren bilera eta behin behineko esleipena Torregrosaren alde.

2018/2 Kontratu Publikoen Foru Legearen 100 artikulua jarraituz esleipena etenda gelditzen da 10 eguneko epean. Epe hori pasata esleipena behin betikoz onartu eta kontratua sinatzeko hilabeteko epea irekitzen da.

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Behin betiko esleipena ematea ibilgailu elektrikoa erosteko hornidura kontratuari Torregrosa SL enpresaren alde Peugeot Rifter ibilgailua 29.900 euroko prezioan erosteko.**

**-Kontratua sinatzeko Basaburuko alkatea den Santos Etxegia ahaldundu.**

## **6.- Mozioak.**

Baztango Aroztegia proiektuaren inguruan EH Bildutik jasotako mozioa irakurtzen du alkateak, ondoren transkribatzen dena.

“ Aroztegiko proiektuak, 340 biztanle inguru dituen Lekarozko herrian hotela, golf zelaia eta 228 luxuzko etxebizitza egitea planteatzen du. Baztango etxeen %36a etxe hutsak edo bigarren etxe bizitzak direla jakinik, hasieratik nabarmena izan da proiektu honen izaera espekulatzaila. Lekaroztarrek eta Baztandarrek behin eta berriz proiektu honen kontrako iritzia adierazi badute ere, Nafarroako Gobernuak UGEpa (Udalez Gaineko Eragina duen Plana) gisa onartuz proiektu hau inposatzen tematu da. Modu honetan, Nafarroako Gobernuak herritarren interesak defenditu beharrean, interes pribatu eta espekulatzailak defenditu ditu, herritarrak inposizio honen aitzinean beren burua defenditzera behartuz.

Hondar urteetan, Aroztegia proiektuaren kontrako oposizioan parte hartu duten Baztandar herritar eta ordezkariak jazarpen judizial eta ekonomiko nabarmena pairatu dute. Proiektu honek pelotazo urbanistiko bat burutzea du helburu, eta Nafarroako Gobernuak UGEpa onartu izanak Baztango instituzioen eskumenak eta herritarren erabakitze gaitasuna urratu ditu.

Prozesu honetan, enpresa pribatu baten mesedetan, demokrazia eta herritarren borondatea alde batera utzi dira. Baztandarrek beren etorkizunaz erabakitze duten eskubidea urratu dute, herri eta nekazal lurak desjabetuz, baliabide naturalak kaltetuz, eta desegituraketa soziala zein hizkuntza eta kulturaren gainbehera eragingo lukeen proiektua bulkatuz. Hau Euskal Herrian historikoki eman den zapalkuntza eta inposizioaren bertze adibide nabarmena da, herri zapaldu eta okupatua garela berretsiz.

Horrez gain, 2021ean akanpada baten bidez Aroztegiko obrak geldiarazteko desobedientzia ekimena aitzin eramateagatik zazpi auzipetuek pairatzen duten egoera salatu nahi dugu: epaiketa izanen dute eta denera 20 urteko kartzela eta 56.000 euroko fidantza eskatu diete zigor gisa. Ez da zilegi eta ez da bidezkoa herritarrak eta ordezkariak kriminalizatzea denenak diren lurak eta baliabideak defendatzeagatik.

Horrenbertzez, udal honek honako hau erabakitzen du:

1. Elkartasuna adieraztea Aroztegiko obra gelditzeagatik auzipetutako zazpi herritarrei, eta beraien absoluzioa eskatzea.

2. Baztango herritarrek eta ordezkariak prozesu honetan jasan duten jazarpen judiziala eta ekonomikoa salatzea.
3. Herrien burujabetza eta erabakitzeko eskubidea aldarrikatzea, eta pelotazo urbanistiko eta inposizioen aitzinean Euskal Herriko herritarrek beren etorkizunaz erabakitzeko duten eskubidea defendatzea.
4. Otsailaren 1ean Iruñean eginen den manifestazio nazionalan Udal honen atxikimendua adieraztea, eta herritarrei bertan parte hartzeko deia egitea.
5. Nafarroako Gobernuari UGEPa gelditzeko eskatzea, bere erantzukizuna baita proiektua behin betirako gelditzea. “

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

Bigarren mozioa ere irakurtzen da, Martxoaren 8an aldarrikatzen den Emakumeen Nazioarteko Egunaren ildora Ultzamako Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateik bidalitakoa.

Ondoren transkribatzen da irakurritako mozioa:

Aurten, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Nafarroako Toki eta Lurralde Erakundeetako Berdintasun Teknikarien Sareak mezu argi bat helarazi nahi du: Genero berdintasuna oraindik lortu gabe dagoen justizia sozialeko auzi bat da. Legeek eta araudiek berdintasun formala aitortu arren, berdintasun erreala ez da lortu, egunerokoan oztopo nabarmenei aurre egin behar baitiete lanaldi bikoitzak edo hirukoitzak egin behar dituztelako. Nafarroako estatistikek hala erakusten dute: emakumeek gizonek baino % 20 gutxiago kobratzen dute, eta % 36 dira emakumeak lidergoko postuetan. Emakumeek betetzen zituzten, 2020an, lanaldi partzialeko enpleguen % 80 baino gehiago eta, gainera, familia betebeharrekin haien lanaldia baldintzatzen dutela adierazten dutenen % 87 emakumeak dira. Haiek denbora bikoitza ematen dute zaintza-lanetan eta etxeko lanetan, eta horrek eragin negatiboa izaten du kalitatezko enpleguak lortzeko eta, oro har, haien ongizatean. Horren adibide da zaintza lanen eraginez ordaindutako enpleguan emakumeek izaten duten inaktibitate-tasa % 27,2 dela. Sektore feminizatuak dira oraindik prekarizatuenak, eta batez ere emakumeek hartzen dituzte beren gain ordaindu gabeko lanak; eta horrek beren garapen profesionala mugatu eta bizitzaren eremu guztiei eragiten dien genero-arrakala iraunarazten du. Arrakala hori areagotu egiten da emakumeak migratzaileak direnean, desgaitasunen bat dutenean, LGTBIQ+ kolektibokoak direnean, eta abar. Ordaindutako eta ordaindu gabeko lanaren dualtasunaren emaitza egiturazko desberdintasuna da, urgentziaz agerian jarri eta konpondu behar dena. Horixe bera salatzen ari da feminismoa 60ko hamarkadatik, alegia, zaintza lanen kontzeptuaren

esanahia berrikusi zenetik. Ezinbestekoa da aurrera egitea emakume guztien lana aintzat hartu eta baloratuko duen gizarte baterantz, erantzukidetasuna eta berdintasun politikak sustatu eta berdintasun erreala eragozten duten oztopoak ezabatuko dituen gizarterantz. Fake news delakoa atzean uzteko garaia da, baita berdintasuna jada lortua dela baieztatzen duten mito antifeministak ere. Erakunde, enpresa eta herritarrei arduraz jokatzeko eskatzen diegu oraindik ere gure gizartean irauten duten genero arrakalak desagerrarazteko. Horretarako, adierazpen honen sinatzaileok honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Erantzukidetasuna sustatzeko sentsibilizazio programak eta kanpainak diseinatu eta abian jartzea, gizonak eta emakumeak neurri berean inplikatzuz eta interseksionalitatea kontuan hartuz, egoera zaurgarrienetan dauden kolektiboen behar espezifikoak erantzuteko.
- Gure erakundeetako generoari loturiko soldata-arrakalaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko neurriak garatzea, eta bermatzea lan-hitzarmenek eta -akordioek emakumeen lanaren balorazio justua islatzen dutela, bereziki sektore feminizatuetan.
- Ordaindu gabeko lana bizitzaren iraunkortasunerako ardatz nagusi gisa aitortzen eta baloratzen duten tokiko politikak ezartzea, eta pertsona guztientzako zerbitzu publiko unibertsalak bermatzea.
- Genero-berdintasunari buruzko etengabeko prestakuntza eskaintzea gure erakundeetako langile guztiei, eta politika publikoak eta administrazio-erabakiak genero-ikuspegiarekin aplikatzen direla ziurtatzea.
- Mugimendu feministak arlo horretan egindako ekarpenak eta lana aitortzea, eta antolatzen dituzten ekitaldi eta kontzentrazioetan parte hartzera gonbidatzea. Ekintza horiek Nafarroa berdinzaleagoa eta feministagoa eraikitzen lagunduko dute, non emakumeek baldintza berdinetan parte hartu ahal izanen dugun bizitzaren eremu guztietan.

Los reunidos acuerdan por unanimidad aprobar la moción transcrita.

## **7. - Batzordeen informazioa.**

### **Kultura Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.**

Memoria historikoaren inguruan Aizarotzko Jose Luis Estebez informazio biltzen ari da Igoan ibilitako irakasle eta bizilagun baten ingurukoa, gerran hildakoak. Haien omenez zerbait egitea idea daukate Nafar Gobernuak onartzen dituen laguntzak baliatuz.

Basaburuko eguneko antolatzaileekin bilera egingo da, egunaren inguruko hausnarketa bat egiteko, azken urteetako giroa gutxitu delako

Zeramika tailerra egiteko toki bat erabiltzeko proposamena jaso da udalean eta eskatzailearekin ere bilera egingo da aztertze gaia,

Monologoak herrietan egiteko proposamena kontzejuei luzatu nahi zaie, udalak monologoa egingo duen pertsonaren gastua hartuko du bere gain eta kontzejuak tokia eta honi soinu aproposa jartzea (mikrofonoa, altaboza....)

Euskaraldiaren aurkezpena urtarrilaren 30ean burutuko da Larraintzarren.

### **Berdintasun Batzordea. Micaela Elizalde ematen du informazioa.**

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko bileran berdintasun teknikariak urteko programa aurkeztu zuen eta adierazi 2025. Urtean 2. Berdintasun planaren ebaluazioa egingo dela eta 3. Berdintasun plana egiten hasi beharko dela.

Zaintzen itunaren inguruan aurreko urtetan ez zirela ekintza asko burutu adierazi zuen eta aurten bultzada eman nahi diotela horri.

Martxoaren 8aren bueltan Iruñean burutuko den manifestaldira joateko mankomunitateak autobusa jarriko du zonaldean.

Gainera ere pestetarako brigada morea ekimena burutuko da, gazteei bideratutako formakuntza emanaz.

Martxoaren 8ko Emakumeen Egunarekin lotuta urteroko afariatz gain, martxoaren 7an egingo dena Aizarozko ostatuan, otsailaren 28an antzerki saio bat antolatuko du batzordeak Lorena Arangoa egilearekin

### **Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.**

Adinduen yoga ikastaroan baja emateko bi eskaera egin dira, azkenari eskatu zaio egiaztatzea mediku baten dokumentuarekin zergatik baja , kuota ez kobratzeko.

BTT proba maiatzaren 31an burutuko da eta aurreko urteetan 14 urtetik beherakoak u udaleko aseguruan ez zirenez sartzen, aurten Manu Alvarezen bitartez aseguru bat egingo da parte hartze horiek bermatzeko.

### **8.- Informazio orokorra. Alkateak ematen du:**

- Cederna Garalurrek bitartez eguneko zentroa martxan jarri arteko plangintzaren memoria proiektu piloatxoak diruzlagutzen diren deialdia batean sartuko du udalak.
- Goienerekin egin duen urteko kontsumoen txostenean ikusten da, udaleko argi indarraren kontsumoa 2023tik 2024ra ia bikoiztu dela, 5500 kw-tik 9400 kw-era. aztertuko da non dagoen kontsumo igoera hori.
- Garraio Atalak beharren arabera garraio sistema jarriko du martxan, erabiltzaileek aldeztu aurretik eskatu eta hurrengo egunean herritik pasako dena, Herri bakoitzean zein izango den geltokia galdetu da.
- Kontzejuarekin bilera egin zen eta bertan PIL programaren dirulaguntzen azalpenak eman ziren eta ere energia berriztagarrien ingurukoak. Hurrengo bilera kontzejuen kontuak aurkezteko burutuko da otsailean.
- Aizarotzko kontzeju izendatzeko foru agindua urtarrilaren 22an onartu zuen Nafar Gobernuak.
- Otsailaren 5ean bilera egingo da Nilsarekin, industriaguneko ur zikinen sarea Beramendiko araztegiarekin lotzeko obrak bere gain egiteko.

- Aizarotzen auto batek botatako farola aseguruaren bitartez konpontzeko tramitazioa abiatu da.
- Jaunsaratsko Baso Babeslearen obrak hasi dira.

## **9. Erregu-galderak**

Ez daude.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:20 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.